

## 2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA  
**Programa:** 12 TOKI ERAKUNDEAK  
FINANTZATZEKO FORU FUNTSA -  
-TEFFF

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL  
**Programa:** 12 FONDO FORAL DE  
FINANCIACIÓN DE ENTIDADES  
LOCALES - FFFEL

### SAILAREN MEMORIA

### MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

#### I. MEMORIA

Programa honetan jasotzen dira Arabako toki erakundeek beren finantzaketarako jasotzen dituzten ekarpen kuantitatiboki garrantzitsuenak.

#### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

##### 1.- Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa

Helburua: Arabako toki erakundeak finantzatzen laguntzea: kuadrillak, udalak eta kontzejuak.

##### 1.1 Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa.

19/1997 Foru Arauak Toki Erakundeak finantzatzeko Foru Funtzaren partidako funtsen banaketa arautzen du, besteak beste. Foru Arau hori ekainaren 30ean onetsi zuten Arabako Batzar Nagusiek, eta irailaren 25eko 26/1997 Foru Arauaren bidez zati bat aldatu zen. Haren bidez, Arabako toki erakundeak finantzatzeko marko berri bat sortu zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 660/2020 Erabakiaren bidez, 2021eko Aurrekontuen Foru Arau Proiektua onetsi zen. Eta Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren 217.268.910,00 euroko zuzkidura du 2021erako.

2021eko ekitaldiko Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren likidazio zenbatekoa 247.083.924,00 euro da, data horretan indarrean zegoen araudiaren arabera.

Hala ere, Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 25eko 16/2022 Erabakiaren bidez, onetsi zen Gorbeialdeko Kuadrillak itzulketa egitea, Foru Gobernu Kontseiluaren 61/2017 Foru Dekretuan

#### I. MEMORIA

Este programa recoge las aportaciones cuantitativamente más importantes que perciben las Entidades Locales alavesas para su financiación.

#### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

##### 1.- Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales.

Objetivo: Cooperación en la financiación de las Entidades Locales Alavesas: Cuadrillas, Ayuntamientos y Concejos.

##### 1.1 Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales.

La Norma Foral 19/1997 que regula, entre otros aspectos, la distribución de los Fondos con que se dota la partida del Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales fue aprobada con fecha 30 de junio por las Juntas Generales de Álava, y parcialmente modificada por Norma Foral 26/1997 de 25 de septiembre. Con ella se crea un nuevo marco de financiación para las entidades locales alavesas.

Por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral 660/2020, de 17 de diciembre fue aprobado el Proyecto de Norma Foral Presupuestaria para 2021, que contiene una dotación de 217.268.910,00 euros del fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Álava para 2021.

El importe de liquidación del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales correspondiente al año 2021 alcanza la cifra de 247.083.924,00 euros, según la normativa vigente a esa fecha.

No obstante, por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral 16/2022, de 25 de enero, se aprueba el reintegro por incumplimiento de las condiciones establecidas en el Decreto Foral 61/2017, del

## 2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA  
**Programa:** 12 TOKI ERAKUNDEAK  
FINANTZATZEKO FORU FUNTSA -  
-TEFFF

ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

Horrez gain, abuztuaren 3ko 684/2021 Errege Dekretuak transferentzia gehigarri bat ezarri zuen autonomia erkidegoentzat, finantzaketa sistematik kanpo, krisiak haien finantza egoeran izan duen eragina arintzeko eta kudeatzen dituzten zerbitzu publikoen funtzionamendu egokian laguntzeko.

Arabako Foru Aldundiarentzat transferentzia horren zenbatekoa 30.401.808,00 eurokoa dela kontuan hartuta, eta Arabako Lurralde Historikoko toki erakundearen artean Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza zehazteko 4/2021 Legean ezarritako ehunekoaren zenbateko baliokidea banatzea erabaki denez, banatu beharreko zenbatekoa 10.926.410,00 euro da.

Zenbateko hori, sinpletasun arrazoiengatik, FOFELen banaketa arauen arabera banatuko da toki erakundearen artean. Beraz, banatu beharreko funtza, guztira, 258.010.334,00 eurokoa da.

2021eko likidazioan Arabako toki erakundeek izan duten amaierako partaidetza, banakaturik, hau izan da:

A) Arabako toki erakundeek dagokien partaidetza, Arabako Foru Aldundiak eskualdatu dizkien zerbitzuengatik:

A-1) Gasteizko Udala, eskualdatu zaizkion Gizarte Ongizateko zerbitzuengatik:  
2.489.263,88 euro. Zenbateko hori oso-osorik ordaindu zen 2021eko ekitaldian.

B) Kuadrillen partaidetza finkoa eta 19/1997 Foru Arauaren 8. artikulua b) apartatua dioena aplikatu ondoren ateratzen den partaidetza.

B-1) Kuadrilla bakoitzaren partaidetza finkoa, kuadrillaren batzarreko kideek administrazio azpiegiturarako eta funtzionamendurako egindako gastuengatik.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL  
**Programa:** 12 FONDO FORAL DE  
FINANCIACIÓN DE ENTIDADES  
LOCALES - FFFEL

Consejo de Gobierno Foral por parte de la Cuadrilla de Gorbeialdea.

A parte de ello, el Real Decreto 684/2021, de 3 de agosto, establece una transferencia adicional para las Comunidades Autónomas, al margen del sistema de financiación, con el fin de amortiguar el impacto de la crisis en su situación financiera, y de colaborar en el adecuado funcionamiento de los servicios públicos que gestionan.

Teniendo en cuenta que el importe de dicha transferencia para la Diputación Foral de Álava asciende a 30.401.808,00 euros, y se ha acordado repartir entre las entidades locales del Territorio Histórico de Álava un importe equivalente al del porcentaje establecido en la Ley 4/2021 para determinar el Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales, la cifra resultante a repartir asciende a 10.926.410,00 euros.

Dicho importe, por razones de simplicidad, se repartirá entre las entidades locales conforme a las reglas de reparto del FOFEL. Por consiguiente, el fondo total a distribuir asciende a 258.010.334,00 euros.

La participación final en la liquidación 2021 de las distintas entidades locales de Álava se desglosa en:

A) Participación por la prestación de servicios traspasados desde la Diputación Foral de Álava a las entidades locales alavesas:

A-1) Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, por los servicios de Bienestar Social transferidos:  
2.489.263,88 euros. La citada cuantía fue abonada en su totalidad durante el ejercicio 2021.

B) Participación fija de las cuadrillas y participación derivada de la aplicación del apartado b) del artículo 8 de la Norma Foral 19/1997.

B-1) Participación fija a cada una de las cuadrillas, en atención a los gastos de infraestructura administrativa y funcionamiento originados por los miembros de su Junta de Cuadrilla.

## 2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA  
**Programa:** 12 TOKI ERAKUNDEAK  
FINANTZATZEKO FORU FUNTSA -  
-TEFFF

Kuadrillei kontzeptu horrengatik dagokien partaidetza 67.613,86 euro da, eta, guztira, 405.683,16 euro da hori, banatutakoa adinako zenbatekoa, alegia.

B-2) Kuadrillek, zerbitzu jakin batzuk emateagatik Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean duten partaidetza, 19/1997 Foru Arauaren 8. artikuluko b) apartatuan ezarritakoaren arabera.

Kontzeptu horrengatik, egiaz dagokien partaidetza 1.720.053,46 euro da, eta zenbateko hori oso-osorik ordaindu zaie kuadrillei.

C) Toki erakundeei oinarrizko tartean dagokien egiazko partaidetza 68.416.740,05 euro da, eta honela banatzen da:

- Kuadrillak: ..... 1.864.266,44 euro.
- Udalak: ..... 61.517.607,51 euro.
- Kontzejuak: ..... 5.034.866,10 euro.

D) Udalei tarte osagarrian dagokien partaidetza 184.978.593,45 euro da.

Beraz, 2020ko ekitaldiko Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua aplikatuz, 2021eko abenduaren 31n 6.860.461,92 euroko saldo metatua zegoen TEPEFen.

1.2. 60.101,21 euro baino gutxiago jasotzen dituzten udalei ematen zaien konpentsazio dirulaguntza.

Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Batzordeak 1998ko irailaren 9ko bilkuran erabakitakoaren arabera, partida bat erreserbatu zen 2021eko ekitaldian Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean 60.101,21 eurotik beherako partaidetza zuten udalei egin beharreko konpentsazioari aurre egin ahal izateko, horrela gutxienez zenbateko hori jaso zezaten. Behin udalei banatu beharreko funtsak banatuta, denek jaso dute aipatutako zenbatekoa baino handiagoa; horrenbestez, ez da beharrezkoa izan partida honen bidez finantzaketa osagarria jotzea.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL  
**Programa:** 12 FONDO FORAL DE  
FINANCIACIÓN DE ENTIDADES  
LOCALES - FFFEL

La participación de las cuadrillas por este concepto es de 67.613,86 euros alcanzando un total de 405.683,16 euros, cuantía idéntica a la ya repartida.

B-2) Participación de las cuadrillas en el Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales como consecuencia de la prestación de determinados servicios, a tenor de lo establecido en el artículo 8, apartado b), de la Norma Foral 19/1997.

Por este concepto la participación real asciende a 1.720.053,46 euros, habiéndose abonado en su totalidad dicho importe a las cuadrillas.

C) La participación real que les corresponde a las diferentes entidades locales en el tramo básico es de 68.416.740,05 euros, que se distribuyen :

- Cuadrillas: ..... 1.864.266,44 euros.
- Ayuntamientos: ..... 61.517.607,51 euros.
- Concejos: ..... 5.034.866,10 euros.

D) La participación que les corresponde a los ayuntamientos en el tramo complementario es de 184.978.593,45 euros.

En aplicación de la Norma Foral de ejecución presupuestaria para el ejercicio 2020, el saldo acumulado de FEPEL a 31 de diciembre de 2021 alcanza la cifra de 6.860.461,92 euros.

1.2 Subvención compensatoria para los ayuntamientos con percepción de Fondos inferiores a 60.101,21 euros.

En base a lo convenido en el seno del Consejo Territorial de Administración Local y Finanzas en su sesión de 9 de septiembre de 1998, se reserva una partida para poder hacer frente a la compensación a realizar a aquellos ayuntamientos cuya participación en el Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de 2021 fuese inferior a 60.101,21 euros, de forma que percibiesen al menos esa cantidad. Una vez realizada la distribución de fondos a los ayuntamientos, todos ellos sobrepasaron la citada cantidad, por lo que no ha sido necesario recurrir a la financiación complementaria a través de esta

## 2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA  
**Programa:** 12 TOKI ERAKUNDEAK  
FINANTZATZEKO FORU FUNTSA -  
-TEFFF

### 2.- Udalen partaidetza

2-1 Udalek itundu gabeko zergetan duten partaidetza.

**Helburua:** *Udalei Estatuarekin itundu gabeko zergetan dituzten partaidetzak transferitzea.*

Ekonomia Itunaren Legean xedatutakoaren arabera, itundu gabeko zergetako partaidetzak ordaindu zizkien Aldundiak Arabako udalei. 2021eko ekitaldirako, aurrekontuan esleitutako zenbatekoa 380.000,00 euro izan zen. 372.809,09 ordaindu dira guztira.

Itundu gabeko zergetan udalek duten partaidetzaren partida Estatuaren Ogasunak Arabako udalen artean banatzeko sarreraren aurreikuspenarekin hornitu da 2021ean: 380.000,00 euro.

Gastuen atalean ere esan den bezala, 2021eko ekitaldian jasotako sarreraren benetako zenbatekoa handiagoa izan da, hain zuzen ere, 372.809,09 euro, eta udalei ordaindu zaie oso-osorik.

### 3.- Kontzejuei aseguruak finantzatzea

Arabako Foru Aldundiak Arabako kontzejuen alde hainbat arrisku estaltzen dituzten aseguruak kontratatzeke konpromisotik eratorritako gastuei erantzuten die azpiprograma honek.

Kontzeju askok adierazitakoari erantzunez, arrisku hauetatik babesteko aseguru polizak kolektiboki kontrata daitezela sustatzen du Aldundiak: erantzukizun zibileko arriskuak, kontzeju kideak beren eginkizunak betetzen ari direneko istripuak, kontzejuaren jabetzako eraikinen estaldura eta auzolanetako istripuak. Borondatezkoa da poliza horiek kontratatzea, eta kontratatu ondoko kudeaketa Aldundiak egiten du. Hortaz, kontzejuek ez dute inolako izapiderik egin behar. Ezagutza eta parte hartze maila handiena lortzea sustatzeko, Aldundiak primen kostuaren % 50eko dirulaguntza ematen die

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL  
**Programa:** 12 FONDO FORAL DE  
FINANCIACIÓN DE ENTIDADES  
LOCALES - FFFEL

partida.

### 2.- Participación Municipal

2-1 Participación de los Ayuntamientos en los Tributos no Concertados.

**Objetivo:** *Transferir a los Ayuntamientos sus participaciones en los Tributos no Concertados con el Estado.*

Conforme a lo establecido en la Ley de Concierto Económico, por la Diputación se abonó a los ayuntamientos alaveses las participaciones de éstos en los Tributos no Concertados. Para el ejercicio 2021 la cantidad asignada en presupuesto alcanzó 380.000,00 euros. Se han abonado en total 372.809,09 euros.

La partida "Participación de los Ayuntamientos en los Tributos no Concertados" se dota en 2021 con la previsión de ingresos realizada por la Hacienda del Estado para su distribución entre los ayuntamientos alaveses, y que para el citado ejercicio asciende a 380.000,00 euros.

Como ya se ha citado en el anterior apartado de gastos, el ingreso efectivo percibido ha sido superior, alcanzando la cifra de 372.809,09 euros correspondientes al ejercicio 2021 y que en su totalidad han sido ingresados a los ayuntamientos.

### 3.- Financiación Aseguramiento Concejos

Este subprograma soporta los gastos derivados del compromiso asumido por la Diputación Foral de Álava para con los concejos alaveses en materia de contratación de seguros para la cobertura de diversos riesgos.

Atendiendo al sentir manifestado por muchos concejos, la Diputación promueve la contratación de forma colectiva, de pólizas de seguros para las coberturas de riesgos de responsabilidad civil, accidentes de corporativos en el ejercicio de sus funciones, cobertura de edificios propiedad del concejo y accidentes en veredas. La adhesión es voluntaria, y tanto la contratación como la gestión posterior se realizan por la Diputación, evitando a los concejos cualquier tramitación. Como incentivo para lograr la mayor difusión e implicación, la Diputación subvenciona el 50 por ciento del coste de

## 2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA  
**Programa:** 12 TOKI ERAKUNDEAK  
FINANTZATZEKO FORU FUNTSA -  
-TEFFF

atxikitako kontzejuei.

Gainera, modu zentralizatuan kontratatzen direnez, unitateko prezio hobea lortzen da bakoitzerako, kontzeju bakoitzak bere kontura kontratatuta baino.

Urriaren 7ko 316/2020 Foru Dekretuaren bidez, Arabako kontzejuek dituzten zenbait arrisku estaltzeko lau aseguru poliza luzatzea onetsi zen. Hain zuzen, Surne, Mutua de Seguros y Reaseguros konpainiari zinegotzi eta idazkariaren eta auzolanetara joaten direnen istripu polizak (26.789,06 euro) eta AXA Seguros Generales SA de Seguros y Reaseguros enpresari eraikinen estaldurarako eta erantzukizun zibileko poliza (91.800,00 euro).

Horri erantsi behar zaio Aon SA enpresari esleitu zitzaizkiola, abenduaren 22ko 236/2020 Foru Aginduaren bidez, aseguru artekaritzako zerbitzuak, Arabako kontzejuen aseguru sistema osatzen duten polizei dagokienez, 3.500,00 euroko zenbatekoaz.

2021eko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea indarrean sartzearekin batera, aseguru primen gaineko zergaren karga tasa ehuneko 6tik ehuneko 8ra aldatu da, eta horrek ekarri du zenbatekoa handitzea, hasieran aurreikusitakoekin alderatuta. Ondorioz, aseguru guztizko kostua 124.321,96 euro da.

“Kontzejuen aseguramenduen finantzaketa” partida, 2021ean, aseguruak kolektiboki kontratatzeko sistemarekin beren borondatez bat egin duten kontzejuek egin beharreko diru sarreren aurreikuspenarekin hornitu da. Hori primen kostuaren % 50 da, alegia, 62.160,98 euro.

Beraz, orotara, bai kopuruari dagokionez, bai kalitateari dagokionez, helburuak guztiz bete dira.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL  
**Programa:** 12 FONDO FORAL DE  
FINANCIACIÓN DE ENTIDADES  
LOCALES - FFFEL

las primas a cada uno de los concejos adheridos.

Además, al ser contratados de manera centralizada, se consigue mejor precio unitario para cada uno de ellos, que si fueran contratados individualmente por cada concejo.

Por Decreto Foral 316/2020, de 7 de octubre, se aprueba la prórroga de las cuatro pólizas de seguros destinadas a cubrir diversos riesgos de los concejos de Álava. En concreto, las correspondientes a accidentes de corporativos y fiel de fechos y participaciones en veredas a la compañía Surne, Mutua de Seguros y Reaseguros por importe de 26.789,06 y la relativa a cobertura de edificios y responsabilidad civil a la empresa AXA Seguros Generales, S.A. de Seguros y Reaseguros por 91.800,00 euros.

A ello hay que añadir, la adjudicación a la empresa Aon S.A., mediante Orden Foral 236/2020, de 22 de diciembre, de los servicios de correduría de seguros en relación con las pólizas que conforman el sistema de aseguramiento de los concejos alaveses por importe de 3.500,00 euros.

Con la entrada en vigor de la Ley de Presupuesto Generales del Estado 2021, se ha modificado el tipo de gravamen del Impuesto sobre las Primas de Seguros del 6 por ciento al 8 por ciento, lo que ha supuesto un incremento del importe respecto a las inicialmente previstas. Como consecuencia de ello, el coste total de los seguros asciende a 124.321,96 euros.

La partida “Financiación Aseguramiento Concejos” se dota en 2021 con la previsión de ingresos a realizar por los concejos que voluntariamente se han adherido al sistema de contratación colectiva de seguros. Representa el 50 por ciento del coste de las primas, esto es, 62.160,98 euros.

En su conjunto, puede afirmarse que, el cumplimiento de los objetivos, tanto cuantitativos como cualitativos ha sido total.